

BI MILA ETA HAMAİKAKO URTARRILAREN 27AN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZOHICO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

2012ko urtarrilaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ezohiko eta presazko Osoko Bilkura deitu, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izan du eta zinegotzi hauek bertaratu dira:

Bertaratuak

ENEKA MAIZ ULAYAR and.
AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.
EDURNE IGOA LIZARRAGA and.
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.
ARACELI ERDOZIA ANSO and.
MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.
MAIDER GOÑI ERRAZKIN and
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.
FRANCISCO MANUEL CAMPOS ARAÑA Jn.

Idazkaria

Silvia Gonzalo Etxarri

Hasi baino lehen, alkateak ezohiko eta premiazko bilera egitearen premia justifikatu du:

Toki Administrazioako Foru Legeak 78 artikuluan udalbatzak deialdi berretsi behar duela dio. Bertaratutakoek gaur egiteko premia zegoela onartu dute eta deialdia egitea berresten dute.

GAIA: ALKATEAK JASOTAKO ERASOA

Alkatek azaldu du eraso bat jaso zuela udal ordezkari izateagatik eta horregatik ez direla sekula irainak eta erasoak jaso behar. Salaketan eta horren ondorioz ireki den prozeduran ahal den eskaera baxuagoa egin dela jakinarazi du. Beste partetik keinuren ikusiko balu gaia erabat desberdina izango zela adierazi du.

Bildu taldeko zinegotzi batek proposatutako testua irakurri du: 2012/01/26an David Lizarragarekin gertatutakoa azaltzen duena.

“2012ko ilbeltzaren 26an, David Lizarraga Goicoecheak, Construcciones TDH Lizarraga enpresaren arduradunak, eraso egin zion gaur egungo Etxarriko alkatea denari. Bulegoan sartu, eta zenbait mehatxu eta irain larrien ondotik, eraso fisikoa egin zion.

Gertaera larri hori ikusirik, zera adierazten du Etxarriko udalak, Osoko Bilkura honen bidez:

✓ Gertaera larri hori, eta David Lizarraga erasotzailearen jarrera lotsagarria eta justifikaezina dela.

✓ Onartezina dela alkateak horrelako erasoak jasotzea, bere eginkizun eta ardura administratiboak zuzentasunez betetzeagatik.

✓ Alkatea etxarriar guztion ordezkari gorena dela, eta hartara, berak jasotako erasoak etxarriar guztiok jasotako erasoak ere badela.

✓ Udalbatzak babes guztia ematen dio alkateari, orain arte bezala bere betebeharrak zintzotasunez eta zuzentasunez bete ditzan.

Bestetik, bilkura honek onartzen du, alkateak egindako salaketaren ondorioz gauzatuko den epaiketan, Etxarriko Udala akusazio partikular moduan aurkeztea”

Idazkariak dio, horretarako 06/2012 ebazpena berretsi beharko dela eta abokatua eta prokuradorea izendatu beharko dela.

Testu osoari bozka egin baino lehen NABAI-ko zinegotziak testuaren bigarren zatiaren ados ez daudela, salaketarekin. Baina, lehengo zatiarekin bai. Hau da,

✓ Gertaera larri hori, eta David Lizarraga erasotzailearen jarrera lotsagarria eta justifikaezina dela.

✓ Onartezina dela alkateak horrelako erasoak jasotzea, bere eginkizun eta ardura administratiboak zuzentasunez betetzeagatik.

✓ Alkatea etxarriar guztion ordezkari gorena dela, eta hartara, berak jasotako erasoak etxarriar guztiok jasotako erasoak ere badela.

✓ Udalbatzak babes guztia ematen dio alkateari, orain arte bezala bere betebeharrak zintzotasunez eta zuzentasunez bete ditzan.

Proposamena bere osotasunean bozkatu da. Bildu taldeko zinegotziak, proposamenaren alde egin dute eta NA-BAIko zinegotziek kontra, baina lehengo zatiarekin erabat ados daudela argitu dute.

Hori dela eta, Osoko Bilkurak erabaki du:

1.-Aurkeztutako proposamena onartzea:

“2012ko ilbeltzaren 26an, David Lizarraga Goicoecheak, Construcciones TDH Lizarraga enpresaren arduradunak, eraso egin zion gaur egungo Etxarriko alkatea denari. Bulegoan sartu, eta zenbait mehatxu eta irain larrien ondotik, eraso fisikoa egin zion.

Gertaera larri hori ikusirik, zera adierazten du Etxarriko udalak, Osoko Bilkura honen bidez:

“Gertaera larri hori, eta David Lizarraga erasotzailearen jarrera lotsagarria eta justifikaezina dela.

✓ Onartezina dela alkateak horrelako erasoak jasotzea, bere eginkizun eta ardura administratiboak zuzentasunez betetzeagatik.

✓ Alkatea etxarriar guztion ordezkari gorena dela, eta hartara, berak jasotako erasoak etxarriar guztiok jasotako erasoak ere badela.

✓ Udalbatzak babes guztia ematen dio alkateari, orain arte bezala bere betebeharrak zintzotasunez eta zuzentasunez bete ditzan.”

2.- 06/2012 ebazpena berrestea: alkateak egindako salaketaren ondorioz gauzatuko den epaiketan, Etxarriko Udala akusazio partikular moduan aurkeztea. Horretarako Leire Martin Zeztano, abokatuak eta Ana Imirizaldu Pandilla prokuradorea izendatzen dira.

3.- Akordioa epaitegira lehenbailehen bidaltzea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 19:30 presidentek Osoko Bilkura amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.